

Ikastetxe-Klik proiektua:

Energia garbi eta merkeena, kontsumitzen ez dena! lelopean, Ikastetxe-Klik proiektua burutuko da oraingo ikasturtean Debagoieneko hamar ikastetxetan. Debagoiena 2030 ekimenak bultzatuta eta udalek lagundua, energia eraginkortasunaren alorrean lanean dabilen ekoON enpresaren bide-laguntza izango dugu ikastetxeek prozesu guztian zehar.

Oraingo ikasturte bukaerarako ikastetxeetako eraikinetako energia eta ur kontsumoak murriztea da helburua: horretarako, neurri eraginkorrak proposatu eta praktikara eramango ditugu.

Neurri horien proposamena eta jarraipena egiteko hezkuntza komunitateko kideez osaturiko Energia Taldeak sortu ditugu ikastetxeetan. Energia taldean ikastetxeko langileak –izan irakasle, garbitzaile, jantokiko langile...–, gurasoak eta ikasleak egongo dira ordezkaturik. Horrek bultzatuko du murrizketan ez ezik, eskola komunitate osoaren kontzientzietan ere aldaketak eragitea. Ikasturtean zehar landuko dira, batez ere, ohitura aldaketak.

Proiektuan parte hartuko duten ikastetxe publikoak hauek dira: Aretxabaletan, Kurtzebarri eskola; Arrasaten, Arrasate herri eskola eta Arrasate institutua; Bergaran, San Martin herri eskola; Elgetan, Elgetako herri eskola; Eskoriatza, Luis Ezeiza herri eskola eta Oñatin, Oñatiko instituta eta herri eskola.

